

## **IKASTAROA:AUZOLAN DIGITALA: WIKIPEDIA EDITATZEN (2014)**

Tresna digitalak hor daude, baina sarritan globalizazioa norabide bakarrean ulertzen da. Tailer honetan Wikipedia bezalako proiektu batean lan egiteko tresnak erakutsiko dira, norberak parte aktiboa hartu dezan garatzen ari den eduki ekosistema berrietan.

**Helburua:** Eibar inguruko informazioa partekatu eta sareratu Interneten, Wikipedia eta orohar auzolan edizioa ezagutzuz.

**Edukiak:**

- Zer da wiki bat
- Wikipedia
- Edukiak eta eskumenak
- Wikipedia eta erabilpenak: testuak, irudiak, bestelakoak
- Edukiak sareratu eta partekatu

**Tramitatzailea:** Euskara-Kultura saila.

**Nork emango du:** CodeSyntax.

**Hartzaileak:** 16 urtetik gorakoak.

**Non eta noiz:** PORTALEko Harrera-lekuan apirilaren 8an eta 10ean.

**Ordutegia:** 18:30-20:00.

**Ikastarora ekarri behar den materiala:** ordenagailua/tableta.

**Ikastaroaren prezioa:** 6€ eibarren erroldatutakoentzat. Matrikula orokorra 10 €

**Ikastaroaren ordainketa:** matrikula, ordainketa bakar batean kobratuko da, erreziboa helbideratuta.

**Ikasle kopurua:** gutxienez 8 ikasle, eta gehienez 15 ikasle.

**Ikastaroaren hizkuntza:** euskara.

**Eskaera egiteko tokia:** PEGORA, Herritarren Zerbitzurako Bulegoa.

**Eskaera egiteko epea:** martxoaren 10etik 21era.

**Aurkeztu beharreko agiriak:**

- “IKASTAROA: MATRIKULA ORRIA” izeneko inprimakia behar bezala beteta (PEGORAn eta udal web orrian, [www.eibar.net](http://www.eibar.net), eskuragarri).
- Eskatzailearen eta dagokionean ordezkariaren NANaren, IFKaren... edo balio bereko dokumenturen baten kopia. NAN, IFK... dokumentuen alde biak A-4 neurriko alde bakar batean inprimatuko dira.
- Legezko ordezkariaren kasuan, eskaera izenpetzen duenaren ordezkariaren dokumentu bidez egiaztatua. Egiaztapen hori, zuzenbidean baliozkotzat har daitekeen edozein bitartekoren bidez egin daiteke (notario-ahalordeak, eskriturak...).

**Kudeaketa arauak:**

Matrikularako izena eman dutenen pertsonen kopurua ez bada heltzen ikastaroa emateko ezarritako gutxieneko ikasle-kopurura, ez da ikastarorik egingo. Abisua udalaren web orrian emango da ([www.eibar.net](http://www.eibar.net)), 2014ko martxoaren 24an.

Matrikularako izena eman duten pertsonen kopurua ezarritako gutxieneko ikasle-kopurua gainditzen bada eta ezarritako gehieneko ikasle-kopurutik gorakoa ez bada, matrikula guztiak onartuko dira.

Matrikularako izena eman dutenen kopurua ezarritako gehieneko ikasle-kopurutik gorakoa bada, ikasleen aukeraketa zozketa bidez egingo da. Zozketa PORTALEAN egingo da. Hona hemen zozketa-eguna eta ordua: Eguna: 2014/03/25. Ordua: 11:00. Zozketa era honetan egingo da.

- Zozketa egin aurretik ikastarorako izena eman duten pertsona guztien zerrenda bat egiten da alfabetoaren arabera ordenatuta; bakoitzari zenbaki bat ematen zaio.
- Zaku baten sartzen dira zenbaki guztiak eta zenbaki bakar bat ateratzen da.
- Aukeratuko diren pertsonak zenbaki horretatik aurrerako zenbakiak dituztenak izango dira, ikastaroa emateko dauden leku guztiak bete arte.

Onartu diren pertsonen izenekin zerrenda bat egingo da. Zerrenda hori PEGORAn eta udalaren web-gunean egongo da 2014ko martxoaren 26tik aurrera. Zerrenda hori argitara ematen den unean sortzen da matrikularen zenbatekoa ordaintzeko obligazioa. Ikastaroa utzi edo ikastaroan baja ematen duen pertsonak ez du izango matrikularen zati proportzionala jasotzeko eskubiderik.

**Oharrak:**